

Sariaren Arauak



“Café Bar Bilbao”

Teatro Laburreko Saria
Premio Teatro Breve

2023

"Café Bar Bilbao"

Teatro Laburreko gidoien lehiaketa

CAFE BAR BILBAO-k,
TARTEAN teatroak lagunduta,
"Cafe Bar Bilbao"
Teatro Laburreko Testuen Sariak
antolatzen du eta lehiaketaren 21. ediziorako deia egiten du.

Lehiatzeko arauak:

- 1.- Bi Sari :** Bata Euskarazkoa, eta bestea Erderazkoa.
- 2.- Cafe-teatorako edo **formato txikiko antzerki-lanetarako gidoiak** aurkeztuko dira. "Formato txikia"-k zera esan nahi du, lanaren beharrianak (teknikoak edo artistikoak) txikiak direla eta bere ekoizpena eta banaketa "erreza" izan daitekeela. Lanaren luzera 30 minututako antzezlan bati dagokiona izango da, gutxi gorabehera.
- 3.- Modalitate bi egongo dira: **euskarazkoa eta gaztelaniazkoa**. Gidoi modalitate bakarrera aurkeztu daiteke lan bakoitza. Gaztelaniazko lanen egileek Euskal Erkidego edo Nafarroakoak izan beharko dute.
- 4.- Saria, dirutan, **750 €** izango da (zergak baino lehen). Modalitate bietan. Antzezlanak Cafe Bar Bilbao webean publikatuko dira. TARTEAN teatroak lan hauen irakurketa dramatizatua antolatuko du.
- 5.- **Gidoiak jatorrizkoak**, antzeztu gabeak, argitaratu gabeak eta aurretik beste lehiaketaren batean saritu gabeak izango dira. Beste lanen batetik egindako itzulpenak edo moldaketak ez dira jatorrizkotzat joko.
- 6.- Gidoiak emailaz bidaliko dira Café Bar Bilbao-ra:
info@bilbao-cafebar.com
Epemuga 2023ko Abenduaren 31a
Bi fitxategi bidaliko dira, honela izendatuta:
X-testua eta X-datuak (X = antzezlanaren izenburua)
X-testua fitxategian, Gidoia joango da, egilea identifikatu barik.
X-datuak fitxategian egilearen datuak: Izen-abizenak, bizilekua, telefono zenbakia...

7.- Horrez gain gutun bat bidaliko da Cafe Bar Bilbao-ra...

Cafe Bar Bilbao - Plaza Berria, 6 - 48005 Bilbao

... eta bertan **NANaren fotokopia** eta **Zinpeko aitorpena**, sinatuta, zera adierazten: “gidoia jatorrizkoa eta argitaratu gabea dela, ez dela beste lan batetik moldatua edo antzezturiko lan batena, ez dela izan beste lehiaketaren batean saritua eta ez dela itzulpena”.

8.- Epaimahaiak kontuan hartuko du lanaren **kalitatea** (teatrala, literarioa...) eta **antzezgarritasuna**; hau da, aurreko arauan apaitutako formato txikiko antzerki–lanetarako gidoia izatea.

9.- **Epaimahaiak ahalmen guztia** edukiko du sariak emateko edo eman barik uzteko, hala balegokio. Epaimahaikoen erabakia apelaezina da.

10.- Saritutako lanen **eskubideak egilearenak** izango dira betiere, baina Cafe Bar Bilbaok baimena izango du lana bere webean publikatzeko edo liburu batean argitaratzeko, bai eta irakurketa dramatizatu bat antolatzeke (TARTEAN teatroa).

11.- Edozelan ere, saritutako lanak argitaratu edo antzeztuko balira, Café Bibaok esku hartu barik ere, publizitaterako euskarri grafiko eta ikus-entzunezko guztietan **sari hau jaso duela aipatu** beharko da.

12.- Lehiaketa honetan parte hartzeak arauok osorik onartzen direla esan nahi du.